globalexpress

▶ DOSSIERRA
▶ GIDA DIDAKTIKOA
▶ JARDUERAK

2012ko Urtarrila | 18 zk.

Plazetako matxinada

Proposamen didaktiko hau Bigarren Hezkuntzako ikasleari zuzendua dago. Jarduerak baliagarriak izan daitezke hainbat alorretan, hala nola Herritartasuna eta Giza Eskubideak, Gizarte Zientziak, Etika, tutoretzak, etab; baita, nola ez, gaian interesa duen edonorentzat ere.

Proposamen honen helburua, informazioa bildu eta, era berean, mundu zabaleko bazterretan, han-hemenka, justizia, eskubide zibilak eta egiazko demokrazia errebindikatzen dituzten herritarren mobilizazioen zertzeladak aztertzea da.

Aldi berean, hainbat proposamen eskaintzen ditu, ikasgelako lana ikaskuntza eta herritartasunezko ariketa izan dadin.

Hasierako jarduera

1., 2. eta 3. jarduerak

▶ JARDUERAK 1. orr.

Helburua

- **Hainbat herrialdetan oraindik orain izan diren herritarren mobilizazioen aldeko interesa eta motibazioa piztea.**

Orientabideak

Herritarrak mobilizatu dituzten une, espazio eta gertakari zenbaiten argazki multzo baten inguruko galdera batzuk egingo zaizkie ikasleei.
Manifestazio horiek dituzten adiera anitzak zein diren eta jendea mugiarazten duen zer den ikasleek antzematea litzateke interesgarriena.

Ikasgelako dinamika nolakoa den jakinik, jarduera hau talde koskorretan (hiru lagunekotan, adibidez) landu eta ikasleek talde txikietan ikusten ari direnaz beren ondorioak atera ditzakete. Gero, ondorioak denen artean jorratuko lirateke, ikusten dutenaz gelako ikasle guztiek nolako pertzepzioak dituzten konparatzeko. Honakoak argudiatze-ariketatzat balio izatea garrantzitsua da, ikusitakoaren gaineko ideiak argitzeko.

Amorra zaitezte!

4. jarduera

▶JARDUERAK 2. orr.

Helburuak

- **Egia hutsa adieraziz, gustatzen ez zaizkien edo, areago, haserrarazten dieten gauzez gogoeta egitea.**
- **Elkarrizketa bidez, ikaskideekin ideiak eta sentimenduak partekatzea.**
- **Sumindura ulertu eta emozionalki adieraztea.**

Orientabideak

Lan-dinamika hauxe proposatzen da: ikasle bakoitzari amorrarazten dioten gauzen zerrendatik abiatzea, erantzun "politikoki zuzenak" ematea galaraziko duen zintzotasun-giroa sortuz eta sentimenduen egiazkotasunean murgilduz. Horretarako, ariketa idatzi edo hitz egitearen ordez, beste aukera bat izan daiteke saioa antzeztea, taldearen eta adinen arabera.

Proposamena zeinahi dela ere, ikasleek amorrua sortarazten dienaz hausnarketa egin behar dute, banan-banan; ondoren, talde txikiak osaturik, hausnartutakoa ikaskideren batekin partekatu beharko du, elkarri trukatzeko, komunikatzeko edo, areago, zerbaiten ados dauden egiaztatzeko eta, era berean, amorrua zergatik eragiten dieten. Azkenean, landutakoa gela-taldean denen aurrean jorratzean amorru guztiak agertu beharko lirateke, errepikatu gabe; batek baino gehiagok sentitzen dituztenak adierazi eta aztertzea eta, era berean, amorru batzuk beste batzuk baino larriagotzat jo behar direla pentsatzeko arrazoirik baden eta horien larritasuna determinatzeko irizpidea ezartzerik badagoen finkatzea. Hori posible balitz, amorrarazten edo gaitzitzen gaituenaren kausa ohikoenetako batzuk definitzen hastea komeniko litzateke, hurrengo jardueraren sarrera egiteko.

5. eta 6. jarduerak

▶JARDUERAK 3. orr.

Helburuak

- **Espainiako errealitate sozioekonomikoa eta krisiak gizarte-geruza ahulenetan izan duen inpaktua ezagutzea.**
- **Estatistikek eta zenbait zifra makroekonomikok ezkuta dezaketena interpretatzen ikastea.**
- **Datu horiek gertueneko errealitatearekin lotzea.**

Orientabideak

Gure ikasleek pobrezia zein neurritan ezagutzen duten jakiteko, aurretiaz galdera batzuk egin beharko genizkieke; ondoren, testuan agertzen diren galderak irakurri eta erantzutea eta, azkenik, aurkezten den errealitateaz ondorio batzuk atera beharko lirateke. Azpimarra dezagun zifra horiek ez direla zenbaki hutsak, gutxieneko aukerak ere ez dituzten pertsonak baizik; horietako batzuk, agian, gelako edo ikastetxeko ikasleak izan litezke.

Zergatik irten gara kalera?

7., 8. eta 9. jarduerak

▶JARDUERAK 4-8. orr.

Helburuak

- **Egungo ordenamenduan, pertsona batzuk mobilizatzera bultzatzen dituzten kausetako batzuk ikertzea.**
- **Bidegabekeria sozialen aurrean, elkartasun eta sumindura sentimenduak sustatzea.**
- **Saihestezinezkotzat erakusten zaigun panorama baten aurrean, gaitasun kritikoa landu eta garatzea.**

Orientabideak

Testigantzak irakurri ondoren, horietako bakoitzarekin aldez edo moldez loturik dauden prentsako titularrak ikasleek atzematea komeniko litzateke.

Horiek identifikaturik, ikasleak elkarrizketa egiten hasi eta planteatutako kontuak talde txikitan adostuko lituzkete. Lehendabizi, idazkari eleduna izendatu behar dute eta, adostasunera iritsita, planteatutako titularretatik zein diren testigantzetako protagonistek nozitzen dituzten problematikekin estuen lotuak daudenak. Ondoren, beren problematika zein den zehaztu behar duten, beren egoeraren kausak aintzat hartuta, eta hautaturiko titularrek nolako eragina duten beraiengan. Kontu honetan garrantzi handikoa da protagonisten arteko enpatia garatzea, jarduketaren edo suminduraren kausa imajinatu eta ezagutzen saiatuz, titularrek agertzen dituzten egoerak euskarri hartuta. Taldeek, amaiera emateko, aterako dituzten ondorioak idazkariak bildu eta gela osoari aurkeztuko dizkie, pertsona horien suminduraren kausak ongi zehazten ahaleginduz.

Jarduera burutzeko behar adinako astirik ez balego edo jarduera bera luzeegitzat joko balitz, talde txiki bakoitzari testigantza bana eman dakieke; horrela, taldetxo bakoitzak protagonistaren egoera eta problematika laburbil diezazkioke gela-taldeari, planteatu den lan guztia partekatzeaz gainera.

Edonola ere, amaieran, gure sistemaren bidegabekeriak salatzen dituen herritarren mobilizazioaren oinarrian dauden kausak adostu eta banan-banan azaldu beharko lituzke gela-taldeak.

Historiako amorratuak

10. eta 11. jarduerak

▶JARDUERAK 9-10. orr.

Helburua

- **Historian zehar, era desberdinetako bidegabekeri egoerak (hasi diskriminaziotik eta diktadura edo kolonizaziora arte) salatzea helburu izan duten mugimendu sozialak izan direla egiaztatzea eta horietakoren batean sakontzea.**

Orientabideak

Bloke honi hasiera emateko mugimendu soziala zer den definituko da; jardueretan barrena adieraziko ditugun gertakari zenbaiten bereizgarri komunak bilatzeko aukera emango digu horrek.

Lehen koadroak, mugimendu sozialen antzinakotasunaz (ez baitira gaur egun bakarrik gertatzen den fenomenoa) hausnarketa egiteko baliagarri izango zaizkigu.
Irudiek, bere aldetik, ardatz kronologiko bat taxutzeko bide emango digute; hori egin dezake norberak bakarrik (paperezko orri milimetratuan) edo taldeak (gelan horma-irudia egin eta, bertan talde bakoitzak gaiarekin loturiko testuak edo irudiak ezarriko ditu). Mugimendu sozial horietakoren baten gaineko informazioa zabaltzeko proposamena, berriz, gela bereko talde batzuen artean lana banatuz egin daiteke; ondoren, taldetxo horietako bakoitzak gainerako ikaskideei aurkeztuko lieke. Bestela, alorrean dugun curriculumari begira edo ikasleen interesen arabera, guretzat interesgarrienak diren mugimenduak aukera ditzakegu egokia iruditzen zaiguna gehituko dugularik. Aurkezten dugun zerrenda ez da inola ere itxia: hainbat motatako eta tokitako errebindikazioak bildu nahi izan dira. Ariketak proposatzen dituen une guzti-guztiak lantzea ere ez da beharrezkoa.

12. eta 13. jarduerak

▶JARDUERAK 10-11. orr.

Helburuak

- **Gure ikasleek ikertu dituzten mugimenduen eta gaur egun bizi dugun munduaren artean dauden berdintasunez hausnarketa egitea.**
- **Egungo problematikekin loturiko mugimendu sozialak ezagutzea, dagoeneko ezagun ez badituzte.**

Orientabideak

Ariketa honen abiagunea, "Zergatik irten gara kalera?" blokeko 7., 8. eta 9. jardueretan adostu diren kausen analisian jarri dugu, arrazoi horiek mobilizatzeko adina motibo diren aztertzeko. Hortik hasita, *Democracia real ya!* mugimendua ikertuko dugu, bere agiria eta beste hainbat iturri (horren web orria, edota *15M Mugimenduarena,* adibidez) irakurriz. Blokea ixteko, ezagutzen duguna, harritu gaituena, zalantzak, iruzkinak eta antzekoak eztabaida ditzakegu.

Bide islandiarra

14. eta 15. jarduerak

▶JARDUERAK 12-14. orr.

Helburua

- **Herritarrek planteatzen dituzten aldaketak lortzeko modukoak direla sinestea.**

Orientabideak

Islandian 2008 urtetik hona gertaturikoaren analisia euskailu harturik eta hango egoera eta Espainiakoa konparaturik, eskakizunetako batzuk komunak direla eta Islandian herritarren matxinadek aldaketa garrantzitsuak eragin dituztela ikusiko dugu. Islandian bete den prozesua, eskakizunak eta testuingurua aztertu eta Espainiakoekin konparatuko ditugu.

Ondoren, beste horrenbeste egingo dugu, oraingoan lorpenei helduz, hots, Islandian lortutakoa eta *15M Mugimenduak* egiten dituen eskakizunak alderatuz.
Bi ariketa berezitzat erakusten dizkiguten arren, interesgarria izan liteke biak batera lantzea, testuak irakurri ondoren, eta, era berean, Islandiako eta Espainiako prozesuen testuinguruak eta erdiespenak aztertu eta erkatzea.

16. eta 17. jarduerak

▶JARDUERAK 14. orr.

Helburuak

- **Islandiako matxinadei hedabideek emaniko tratamendua aztertzea.**
- **Horiek isiltzeko izan omen dituzten arrazoiez hausnarketa egitea.**

Orientabideak

Egiptoko eta Islandiako matxinadak bilatzen ditugunean Googlen agertzen diren sarrera-kopuruak alderatuz argi eta garbi ikusiko dugu Egiptoz askoz ere informazio gehiago dagoela eta Islandiaz, aitzitik, ezer gutxi ez dagoela hedabide nagusietan: gobernuei matxinada hori isilpean gordetzea eta arrazoiak lantzea interesatu zaiela ondorioztatzera garamatza horrek. Hedabide maioritarioen gardentasun eta askatasun graduaz ere egin dezakegu gogoeta.

Gaian gehiago sakontzeko gogorik baldin badugu oraino, sare sozialen kontua sar dezakegu, hedabide maioritarioek isildu dutena sare horiexek hedarazi dutelako.

18. jarduera

▶JARDUERAK 14. orr.

Helburua

- **Ikasleei dei egitea, egungo egoerarekin inplika dadin eta aldaketak erdiesteko zein ekarpen egin dezakeen azter dezan.**

Orientabideak

Ideiak ugariago lora daitezen, lana talde txikitan egingo dugu; ideia horiek, gerora, denon artean jorratuko ditugu eta, azkenean, zein hautatuko dugun erabakiko dugu. Oraintxe eman behar zaie askatasuna ikasleei proposamenak egin ditzaten: norberak erabakiko du zein onartu eta zein ez; horrekin batera taldearen proiektua zein den ebatzi behar dugu. Hemen irekitzen diren aukerak zabalak dira: hasi gure ikastetxean partaidetzazko demokraziari buruzko azterketa egitetik eta 15M Mugimenduarekin berariaz loturiko proposamenak hobetzeraino, esate baterako (eta dena ondo zabaltzea, ikastetxean hitzaldiak eman, etab).